

[FOSS](#), Free and Open-Source Software, hemen *software libre*a bezela ezagutzen duguna. Ekimen kolektiboa, enpresa kapitalistak kodea sozializatzea behartzen dituen, bolondresez osatutako enpresa izugarria... *marabillosua* litzateke *bitzita* ur azpian izebergaren potoloa dagoenaren ezjakintasunean. Atal berri honetan, zuen baimenarekin, ur sakonetako errealitate hotz eta gazi goilarakadak ekarriko dizkizuet, zuekin:

## **FOSS DRAMA! Software librearen alde iluna! Ikusi software libre garatzaileen arimen triskantza... interneteko foroetan!**

Internetaren dramaren berezko ekosistema da, hori bazekiten *Grezia Klasikoan* [1]. Badu zeozer *avatar* baten itzalean troll-arena egiteak, bada bestetik [CSCL Globe](#) tamainako egoa duenik ere, eta (batez ere) Internet gehien erabiltzen duen animalia dago: ~~katutxoak~~ gizakia. Horri software libre bezelako *enpresa* batek eskatzen duen borondatea, pasioa, gastuak, denbora, arazoak... gehitzen badizkiogu... ba noizbehinkako *tsunamiak* izaten ditugu. Interneteko foro eta email zerrendetan.

Mitologia eta epika bat existitzen da dramaren inguruan gainera. Linux-aren sortzailea, Linus Torvalds, *81. mailako drama zaldun zuria* da, ezpata bezain zorrotz duen mihia sarritan astintzen duena. Benetan ari naiz, egunen batean ekarriko dizkizuet bere kondairak. Eta hori lehenengo adibidea besterik ez da!

## **Ireki begiak eta begiratu gainazalaren azpian: Software librearen deabruak arimak behar ditu, garatzaileen arimak. Egunero.**

Noizbehinka zuentzako (akaso) arrotz diren urrutiko uretako drama pasarteak ekarriko dizkizuet, ea gustatzen zaizuen proiektutxoa! Hasteko asteko (kar kar kar) lehenengo polemika:

# **Elementary OS eta Bolizko Dorrea**

[Elementary OS](#) Ubuntun oinarritutako GNU/Linux distribuzio bat da. Ubunturi gainean jarri dioten jantzi bat, labur azalduta. Elegantea, sinplea... oso Mac. Asteburu honetan, bertsio zein webgune berria prestatzen ari direlarik, *elementary OS* deskargatu aurretik laguntza ekonomikoa iradokitzen duen widget bat jarri dute. Borondatea eskatzen dute, 0 (zero) jarri eta arazorik gabe deskargatu daitezkelako. Ba bale, baina non dago arazoa orduan? Arazoa widget hori azaltzeko idatzi duten blog bidalketan dago. Goian ikusi duzuen irudia bidalketa horren argazki bat da, polemikaren jatorria (*zero gunea* edo *epizentroa*) adierazita:

We want users to understand that they're pretty much cheating the system when they choose not to pay for software.

**"Softwarea ez ordaintzea sistemari iruzur egitea"** dela diote.



Gogoratzen duzue zer zen *elementary OS* ezta? Ubunturen *soineko* bat. Hau da, tipo hauek euren *Bolizko Dorreko* tontorretik zera uste dute: beraien *fondopantaila* instalatzeagatik dirua zor diegula. Esan diezaiotela [Werner Koch](#)-i.

Irudikatuko duzuen bezala, Internet barrunbeetatik zetorren orru bat entzun zen: **Tsunami**. Reddit [2] [3], Twitter [4], HackerNews [5], blogak [6]... Hainbat bozgorailu topatzen ditu, beti, dramak. Eta olatua hazi eta hazi. Eta orduan idatzitakoak desagertzen hasten dira. Polemikaren iturburu izan zen bidalketa lehenengoa, eskerrak Internet Archive [7] dagoen (badirudi batzuri ahaztu egiten zaiela). Eta moderatzaile diren foroetako mezuak dira hurrengoak, eta blogetako iruzkinak, eta ... ameskaiztoa. Zeren eta Interneten ezin da ezer ere ez desagerrarazi.

Gauzak nola egin behar ez diren erakusten digun pasadizoa. Kolpe gogorra jaso du proiektuak publikoki, beren jarrera prepotenteak [8] ez die basoa ikusten uzten, eta orain basoak bizkar emango die. Nola diren gauzak!

Hurrengoan beste kondaira bat ekarriko dizuet, badut bat buruan super-epikoa eta urteetan zehar hainbat garatzailearen arima irentsi eta gorpua odolustu duena. Ez da gutxi, latitude hauetan horrelakoa *byte* da *bitzitza*, gogorra da ur eta lur berrien esplorazioa.

Argi ibili eta hurrenarte!

[1] Ez dakit zer espero zenuen xD

[2]

[http://www.reddit.com/r/linux/comments/2vi6qo/you\\_are\\_a\\_cheater\\_if\\_you\\_download\\_elementryos\\_for/](http://www.reddit.com/r/linux/comments/2vi6qo/you_are_a_cheater_if_you_download_elementryos_for/)

[3]

[http://www.reddit.com/r/elementaryos/comments/2vk5ba/elementary\\_os\\_devs\\_say\\_youre\\_cheating\\_if\\_you\\_dont/](http://www.reddit.com/r/elementaryos/comments/2vk5ba/elementary_os_devs_say_youre_cheating_if_you_dont/)

[4] <https://twitter.com/search?q=elementaryOS>

[5] <https://news.ycombinator.com/item?id=9049592>

[6] <http://blog.funnelfiasco.com/?p=1652>

[7]

<https://web.archive.org/web/20150211134734/http://blog.elementaryos.org/post/110645528530/payments>

[8] <http://i.imgur.com/PH8Mh1a.png>